

## Bidasoa Bizirik eta Mondragon Unibertsitatea lanean dihardute Bidasoa Beherako lehiakortasuna hobetzen

2010/11/12

Bidasoa Bizirik eskualde garapenerako agentziak eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza enpresa zientzien fakultateak ekitaldi batean parte hartu zuten, joan den urriaren 27an, erakundeak eraldatzen laguntzeko jarduera ildoak aurkezteko, lehiakortasuna hobetzeko proiektu berezien bitartez, berrikuntza, dibertsifikazioa edota merkatu berrien bilaketa landuz.

Ekitaldian, Mondragon Unibertsitateko ikerlaria den Aitor Bediagak, Eralan 2 proiektuaren barruan, behin-behineko zenbait emaitza aurkeztu zituen eskualdeko 32 industri enpresari egindako diagnostiko baten inguruan. Aipatu diagnostikoak beste eskualde batzuetan arrakastaz erabili den metodologia bati jarraituz egin dira, eta erakundeen gaitasun gakoak identifikatzeko balio dute, hobetzeko arloekin eta horien lehentasunekin batera.

Eralan 2 proiektuaren helburua ([www.eralan2.eu](http://www.eralan2.eu)) metodologia eta tresna bereziak garatzea eta partekatzea da, enpresa txiki eta ertainen berrikuntzari egokituak. Proiektu hau bi ikerketa erakunde garatzen ari dira, ESTIA Recherche eta Mondragon Unibertsitatea bera, lankidetzaz sendoaren adibide gisa, eta mugaz gaindiko izaerarekin. Berrikuntzarako behar diren gaitasunak kudeatzeko, identifikatzeko eta garatzeko sortzen diren arazoak mugaz gaindi aztertzen dira.

Orain arte egindako lanak eskualdeko industri enpresak baino hartu ez baditu ere, 2011rako helburua da beste sektore ekonomiko batzuetako beste 100 enpresa gehitzea, esaterako, garraiokoak eta zerbitzuetakoak.

